



TXOSTEN METEOROLOGIKOA –2018KO EKAINA

Ekaina, prezipitazioari dagokionez, ohikoa izan zen, eta tenperaturari dagokionez, berriz, beroa. Muturreko egoerengatik bidalitako abisu gehienak prezipitazioagatik izan ziren, bai iraunkorrak izateagatik, eta baita intentsitate handikoak izateagatik ere. Egoerarik deigarrienak hilaren 3an eta 12-13an izan ziren. Lehengo kasuan, zaparrada oso handiak jaso ziren, puntualki euri-jasak kantauri isurialdearen barnealdean. Bigarrenengan, prezipitazioa iraunkorra izan zen Gipuzkoa ipar-ekialdean. Bi kasuetan pilatutako euriaren ondorioz uholdeak izan ziren; etxebizitzak eta etxabeak urez bete ziren, lur-lerradurak izan ziren eta zenbait errepide moztu ziren. Bigarren egoerari dagokionez, gainera, haize-bolada gogorak izan ziren. Bestalde, aipatzekoa da ez zela beroarekin loturiko muturreko egoerarik izan.

Prezipitazioa

Hilabetea ohikoa izan zen, baina, oro har, batezbestekoaren azpitik dauden balioekin. Toki oso konkretu batzuetan soilik esan daiteke hezea izan zela; esaterako, Gipuzkoa ekialdean, Nafarroako mugan, eta Matxitxako lurmuturretik gertu. Leku horietan pilatu zen prezipitazio gehien, eta horiek izan ziren 100 mm baino gehiago jaso ziren leku bakarrak. Eskas estazioa izan zen besteekiko erabat nabarmendu zena (Eskas 272.8 mm, Berastegi 161.8 mm, Behobia 150.3 mm, Matxitxako 117.2 mm). Eskas estazioarekin konparatuz, magnitude orden bateko aldea dago Araba hegoaldeko hainbat estazioarekin (Subijana 26.1 mm, Moreda 28.9 mm, Kanpezu 31.4 mm). Bilbo Handia inguruan ere balio baxuak izan genituen (Arboleda 33.9 mm, Deusto 37 mm).

Euri-egun gehien hilabetearen lehen partean izan ziren, eta baita azken egunetan ere.

Euri-egun horietatik seietan prezipitazioa oso ugaria izan zen. Zehazki, hilaren 3an, 5ean, 9an eta 11n puntualki 40 mm baino gehiago pilatu ziren.

Egoerarik latzena hilaren 12an izan zen; euria etengabe egin zuen eguerdira arte eta Eskas estazioan ia 100 mm jaso ziren. Inguruko estazioetan 50 mm ingurukoa izan zen pilatutakoa (Eskas 93.1 mm, Behobia 58.7 mm, Oiartzun 53.7 mm, Añarbe 49.6 mm, Ameraun 43.9 mm). Hurrengo eguneko goizaldean euri gehiago egiten hasi zen eta kopuru garrantzitsuak jaso ziren, baina Artikutza ingurura mugatu zen gehienbat (Eskas 61.5 mm, Añarbe 30.7 mm). Irunen (Olaberrian) eta Hondarribian, Bidasoako erretenak gainezka egin ondoren (Jaizubia, 2.35 m 06:50 h), uholdeak izan ziren. Badaezpadako neurri moduan, Añarbeko presagainean ura hustu zen.

Pilatutako kopuru horiez gain, ekaitzak ere protagonista izan ziren ekainean. Hilaren 13ra arte ia egunero bota zituen zaparrada trumoiatsuak. Horietatik



seietan, zaparradak handiak izan ziren (≥ 15 mm/h) eta batean oso handiak (≥ 30 mm/h). Hilaren 29an eta 30ean ere zaparrada handiak izan ziren.

Hilaren 3an izan zen gertaerarik deigarriena. Ekaitz-gune batzuk, oso aktiboak, eguerditik aurrera kantauri isurialdearen barnealdean eragiten hasi ziren; zaparrada handiak eta oso handiak bota zituen, eta puntualki baita txingorra ere (Areta 38.8 mm/h, Gardea 29.3 mm/h, Eitzaga 28.8 mm/h, Berastegi 28.2 mm/h, Saratxo 23.5 mm/h, Aixola 22.3 mm/h, Eskas 19.3 mm/h, Orozko 17.7 mm/h, Arrasate 15.6 mm/h). Balio horiez gain, nabarmentzekoa da Antzuolan neurtutako euri-jasa, 60.7 mm/h (EPTISA). Bergara eta Antzuola arteko zonaldea izan zen kaltetuena; Deba ibaiak gainezka egin zuen, lur-lerradurak izan ziren eta zenbait errepide moztu ziren. Ekaitzak eragina izan zuen beste herri batzuk Atxondo, Abadiño, Elorrio, Laudio eta Amurrio izan ziren.

Egun horren aurrekoa ere ezegonkorra izan zen; ekaitzak garatu ziren isurialdeen banalerroko mendietan eta Gipuzkoa ekialdean, eta zaparrada ertain-handiak bota zituen (Otxandio 25.7 mm/h, Araxes 12.7 mm/h).

Aipagarria da, baita ere, hilaren 9an, Araba ekialdean hasi eta Deba bailaran zehar hedatu zen ekaitz-lerroa (Salvatierra 21 mm/h, Navarrete 15.1 mm/h, Eitzaga 10.9 mm/h, Oñati 10.6 mm/h, Alzola 10.5 mm/h).

Bi egun geroago, hilaren 11n, ezegonkortasun lerro batek kostaldea ukitu zuen eta itsasotik zaparrada ertain-handiak sartu ziren (Matxitxako 20.4 mm/h, Eskas 14.9 mm/h, Bermeo 11.8 mm/h).

Taula 1: Azken urteetan ekainean pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010	2009
Deusto	37.0	62.0	38.2	47.7	19.1	96.7	41.4	29.2	205.2	41.8
Lasarte	94.2	71.8	40.8	90.7	64.8	159.0	50.7	81.0	156.0	33.8
Arrasate	67.5	74.5	47.4	62.6	23.9	144.8	32.0	21.8	160.7	46.4
Abetxuko	40.6	57.3	45.5	43.5	36.4	96.6	19.2	8.3	79.7	39.5
Párganos	37.4	68.6	13.1	58.5	19.1	69.8	23.0	34.4	77.4	27.8

Temperatura

Batez besteko tenperaturaren arabera, ekaina beroa izan zen, Arabako Errioxan izan ezik, non ohikoa izan zen. Kostaldean 18-19 °C inguruan geratu zen batez besteko tenperatura eta Arabako lautadan ozta-ozta gaintu ziren 17 °C-ak;hots, 1981-2010 denboraldi normalaren batezbestekoa baino gradu erdi altuagoa EAE osorako. Azken urteekin alderatuz, erdialdean kokatzen dira balio horiek, 2003 eta 2005eko balio beroetatik urrun.



Hilaren lehen zatian, egun beroak eta hotzak tartekatu ziren. Bigarrenean, berriz, ia egun guztiak beroak izan ziren eta anomalia altuagoekin gainera.

Hilaren 19ra arte termometroa ez zen 30 °C-ra iritsi. Orduetik aurrera ia egun guztietan ailegatu ziren balio horretara toki zehatz batzuetan. Dena den, maximo absolutuak ez ziren oso altuak izan eta ez zen, hortaz, muturreko egoerarik izan. Baliorik altuenak hilaren 26an neurtu ziren, Araba hegoaldean (Moreda 34.2 °C, Zambrana 33.8 °C, Albaina 32.7 °C). Kostaldean brisak tenperaturaren igoera galarazi zuen, hilaren 30ean izan ezik; orduan hego-haizeak etengabe jo zuen (Miramon 31.4 °C, Oiartzun 31.3 °C).

Minimoei dagokienez, hilaren 6a eta 15a izan ziren hotzenak; EAEko toki gehienetan 10 °C-ren azpitik geratu ziren eta 5 °C-ren azpitik ere bai hilaren 6an Gorbeiko mendi inguruetan (Gorbea 5.5 °C, Sarria 5.7 °C), eta hilaren 15ean, Arabako Mendialdean (Pagoeta 4.9 °C, Albaina 5.6 °C).

Taula 2: Ekainean, azken urteetan, neurtutako batez besteko tenperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010	2009
Deusto	18.8	19.3	18.8	19.4	19.3	16.2	19.3	18.6	17.8	19.3
Lasarte	18.1	19.4	17.9	18.3	18.5	15.7	18.7	18.0	17.4	19.0
Arrasate	17.2	18.7	17.0	17.8	17.8	14.6	17.8	16.6	16.0	18.5
Abetxuko	17.2	18.6	16.9	18.1	17.7	14.7	17.9	16.3	15.8	18.2
Párganos	18.1	20.6	18.4	19.6	18.5	15.9	19.3	17.9	16.9	19.6

Haizea

Hilaren 18ra arte laugarren kuadranteko haizea nagusitu zen. Orduetik aurrera tokian tokiko haizea nagusitu zen eta kostaldean, hortaz, brisa ibili zen.

Urte sasoi honetan ohikoa den moduan, ez zen hilabete haizetsua izan. Bolada oso gogorrak neurtu ziren egun bakarrak 12a eta 13a izan ziren, Bizkaiko Golkoan kokaturiko depresio batek sortutako ipar-haizeagatik (Matxitxako 101.9 km/h, Jaizkibel 91.8 km/h, Higer 91.8 km/h, Oiz 89.6 km/h) eta baita 30a ere; orduan hegoaldetik zetozen ekaitzei loturiko boladak izan ziren (Párganos 89.6 km/h, Arrasate 73.4 km/h).

Analisia

Ekainaren 1etik 2ra

Maiatza amaitu zen moduan hasi genuen ekaina ere eta goi-geruzetan askatutako depresio bat izan zen egoera sinoptikoa baldintzatu zuena. Hilaren 1ean Galizian kokatu zen, eta berari lotuta hainbat fronte eta ezegonkortasun-lerro izan ziren. Giroa aldakorra izan zen, zerua oso hodeitsu egon zen eta arratsaldean trumoi-ekaitzak izan ziren. Hilaren 2an, goi-geruzako depresio



askatua Iberiar penintsularen hegoaldera mugitu zen eta ekaitzak orokorrak izan ziren (Albacete eta Murziako zenbait zonaldeetan prezipitazio ugari izan ziren, 24 orduan 100 mm baino gehiago pilatu ziren). Gurean giroak argitzera egin zuen eta, hego-haizearen laguntzaz, termometroak nabarmen igo ziren. Arratsaldean ekaitzak sortu ziren era sakabanatuan, baina toki batzuetan handiak izan ziren (Otxandion 25.7 mm/h).

Ekainaren 3tik 7ra

Hilaren 3an, goi-geruzetako depresio askatua betetzen eta ekialderantz urruntzen zihoan bitartean, beste depresio bat askatu zen Atlantikoan, aurrekoa baino aktiboagoa eta hainbat fronte lotuta zeramatzana. Arratsaldean nukleo konbektibo oso aktiboak sortu ziren, eta euri-jasak utzi zituzten Antzuola, Bergara, Amurrio eta Atxondon, esaterako. Toki horietan uholdeak izan ziren eta errepideen mozketak. Aipagarria da ekaitz horien tokian tokiko eragina, hau da, herri horietan prezipitazioa oso handia edo euri-jasa izan zen bitartean (> 60mm/1h), kilometro gutxira dauden beste leku batzuetan metro koadroko litro batzuk besterik ez zituen bota. Hilaren 4tik 7ra, goi-geruzako depresio askatu horren eraginpean jarraitu genuen. Depresio hura oso poliki mugitu zen ekialderantz, eta bitartean oso giro aldakorra izan genuen gurean; une batzuetan giroa eguzkitsua eta atsegina izan zen, baina beste batzuetan, zerua oso hodeitsu egon zen eta zaparradak eta ekaitzak izan ziren. Hilaren 5a izan zen egoera horren adibide. Goizeko ordu gehienetan zaparradak bota zituen eta prezipitazioa ugaria izan ziren, baina arratsaldean giro eguzkitsua eta lasaia nagusitu zen.

Ekainaren 8tik 12ra

Hilaren 8tik aurrera, goi-geruzan askatutako beste depresio batek zaparradak eta ekaitzak eragin zituen. Dena den, 9an eta 10ean, goizean giroa eguzkitsua izan zen, hodei gutxirekin, bereziki hilaren 10ean. Alabaina, arratsaldean zaparrada eta ekaitz handiak izan ziren; aipatzeko da hilaren 9an Agurainen izandakoa, 43.6 mm pilatu baitziren, 21 mm ordubetea. Hilaren 11n depresioa Bizkaiko golkoan kokatu zen. Goiza oso euritsua izan zen kostaldean eta Matxitxakon 43.3 mm jaso ziren ordu gutxi batzuetan, horietatik 20 ordubetea. Arratsaldean egoera asko hobetu zen, eta ostarte zabalak ireki ziren denean. Hilaren 12an, aldiz, giroak okerrera egin zuen nabarmen. Depresio askatuaren zentroa ekialderantz mugitzen zihoan heinean, Landa inguran kokatu zen, eta berari loturik, biribilduta, fronte okluidu bat zuela. Egoera harekin, ipar-ekialdean euria ugari egin zuen, eta prezipitazioa iraunkorra izan zen; Irun eta inguruetan uholdeak izan ziren. 24 orduan 93 mm pilatu ziren Eskas estazioan, eta 58 mm Behobian.

Ekainaren 13tik 22ra

Hilaren 13tik aurrera azken asteetako dinamika aldatu egin zen. Mendebaldetik Azoreetako antizikloia sartu zen -Afrika iparraldetik Iberiar penintsulara hedatu zen gailur baten isla- eta ondorengo egunetan finkatu egin zen. Egun haietan antizikloia apur bat mugitu zen, batzuetan iparralderantz eta beste batzuetan ekialderantz. Hala eta guztiz ere, Azoreetako antizikloiaren kokapenak hainbat fronte hotzek –ez oso aktiboak- Kantauri ukitzea erraztu zuen. Horrez gain,



iparraldeko fluxua izan genuen, beraz hodeiak nagusitu ziren eta euria egin zuen, oro har, zirimiri moduan kantauri isurialdean 15etik 19ra bitartean. Mediterraneo isurialdean, oro har, giro eguzkitsua izan zuten eta tenperaturak igo egin ziren, dena dela asko ez, iparraldeko haizea nagusitu zelako. Alabaina, Iberiar penintsularen hegoaldean, 850 hPa-eko mailan tenperatura 22 °C-raino igo zen hilaren 19an eta 22an, zegoen gailurraren eraginez, eta lurrazalean tenperatura 35 °C-raino iritsi zen.

Ekainaren 23tik 26ra

Hilaren 23an Britainiar uharteetan omega formako blokeo egoera bat sortu zen. Lurrazalean antizikloia Irlandan zegoen zentratuta, 1030 hPa-eko balioarekin erdigunean. Norabide aldakorreko haizea nagusitu zen, kostaldean brisa eta zeruan hodei gutxi izan genituen. 850 hPa-eko mailan tenperatura asko igo zen eta lurrazalean ere bai: barnealdeko zenbait lekutan 30 °C-tik gora eta Moredako estazioan 35 °C-ra hurbildu ziren hilaren 26an. Beroaren eraginez, batez ere Iberiar penintsularen erdialdean, ohiko bero-depresioa sortu zen. Omega blokeoaren mendebaldean goi-geruzetako depresio askatu bat zegoen eta horrek sortutako ezegonkortasuna nahikoa izan zen Iberiar penintsularen ipar-mendebaldean trumoi-ekaitzen guneak sortzeko hilaren 25ean eta 26an.

Ekainaren 27tik 30era

Nahiz eta antizikloi britainiarrak tinko jarraitu, hilaren 27an oraindik ezegonkortasunaren jarraitu genuen. Iparraldeko haizea nagusitu zen eta behe-hodeiek estali zuten kantauri isurialdea; arratsaldean zaparradak eta trumoi-ekaitzak izan ziren. Hilaren amaierara arte goi-geruzan askatutako depresioa Iberiar penintsularen mendebaldean iraunkor egon zen; hegoaldeko fluxua nagusitu zen eta tenperaturaren igoera eragin zuen. Iberiar penintsulan bero-depresioak giro ezegonkorra eragin zuen eta arratsaldean trumoi-ekaitzak izan ziren; handienak hilaren 30ean EA Eren ekialdean.


Oinarrizko datu estatistikoak

Taula 3: 2018ko ekaineko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

Estazioa	Batez besteko Temp. °C	Temp. max. °C	Temp. max.abs. °C	Temp. min °C	Temp. min.abs. °C	Izotz-egunak	Pilatutako euria l/m ²	Egun batean pilatutako euri max l/m ²	Euri-egunak.
Deusto	18.8	21.9	28.1	15.9	12.0	0	37.0	8.2	10
Lasarte	18.1	22.0	31.1	14.4	10.9	0	94.2	34.3	11
Arrasate	17.2	22.9	31.1	12.9	8.0	0	67.5	16.1	10
Abetxuko	17.2	24.5	32.9	11.3	7.2	0	40.6	11.7	9
Paganos	18.1	24.1	32.5	12.6	8.2	0	37.4	13.6	6




Eguneko tenperatura eta prezipitazioaren grafikoak






Prezิปitazioaren jokaera


Behatutako prezipitazioa
Precipitación observada




Prezิปitazio normala
Precipitación normala



Prezิปitazio normalarekiko desbideratzea
Desviación respecto a la precipitación normala



Prezิปitazio normalarekiko portzentaia
Porcentaje respecto a la precipitación normala





Muturreko egoerak

Ekainean 16 abisu hori igorri ziren, 12 prezipitazio handiagatik, 3 prezipitazio iraunkorragatik eta 1 enbatagatik. Gainera, alerta laranja bat igorri zen prezipitazio handiagatik.

- Hilaren 1ean arratsaldean Iberiar sistematik zaparrada trumoitsuak sartu ziren, intentsitateari dagokionez ertain-handiak, eta bereziki hegoaldean eragin zuten (Zambrana 18.8 mm/h, Zegama 12.9 mm/h, Arkauti 10.2 mm/h).

Ostirala, hilak 1: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 15etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 2an ekaitz-guneak sortu ziren isurialdeen banalerro inguruan eta arratsalde-gauean zaparrada mardulak bota zituen kantauri isurialdearen barnealdeko bailaretan; zenbait lekutan handiak izan ziren (Otxandio 25.7 mm/h, Araxes 12.7 mm/h).

Larunbata, hilak 2: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 15etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 3an, eguerditik aurrera, bai EAEn barnealdean bai Burgos iparraldean nukleo konbektiboak garatu ziren eta kantauri isurialdeko barnealdeko eskualdeetan zaparrada handiak eta oso handiak bota zituen, zenbait momentutan txingorra ere bota zuen (Areta 38.8 mm/h, Gardea 29.3 mm/h, Eitzaga 28.8 mm/h, Berastegi 28.2 mm/h, Saratxo 23.5 mm/h, Aixola 22.3 mm/h, Eskas 19.3 mm/h, Orozko 17.7 mm/h, Arrasate 15.6 mm/h). Behaketa horiez gain, Antzuolan behaketa izugarri bat izan zen, 60.7 mm/h (EPTISA) euri-jasa.

Zaparrada handien ondorioz erreka batzuk gainezka egin zuten. Kalterik handienak Antzuola eta Bergara inguruan izan ziren, Deba ibaiak gainezka egin zuen, eta horrez gain lurjausiak eta errepide mozketak izan ziren. Zaparradek kalteak eragin zituzten beste herri batzuk Atxondo, Abadiño, Elorrio, Laudio eta Amurrio izan ziren.

Igandea, hilak 3: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 12etatik 21etara ordu lokala.

- Hilaren 4an hegoaldetik zaparradak sartu ziren etengabe eta intentsitateari dagokionez ertain-handiak izan ziren EAEn mendebaldean (Aranguren 16.6 mm/h, Venta Alta 13.1 mm/h, Abusu 11.7 mm/h).
- Hilaren 5ean EAEn hego-mendebaldetik sartu zen prezipitazioa eta han-hemenka sakabanatuta zaparrada txiki-ertainak bota zituen (Behobia 14.8 mm/h, Sarria 11 mm/h).

Asteartea, hilak 5: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Bizkaian eta Gipuzkoan 00etatik 18etara ordu lokala.



- Hilaren 7an prezipitazio lerroak sartu ziren eta mendebaldetik ekialdera zeharkatu zuten EAE. Prezipitazioaren intentsitatea ertaina izan zen, bereziki Gipuzkoa ekialdean (Berastegi 13.8 mm/h, Eskas 11.4 mm/h, Ameraun 8.2 mm/h).

Osteguna, hilak 7: Abisu Horia prezipitazio handiagatik barnealdean 15etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 9an eguerditik aurrera trumoi-ekaitz lerroak garatu ziren eta Araba hegoaldetik Deba bailaran barrena hedatu ziren; zenbait momentutan txingorra bota zuen eta prezipitazioaren intentsitatea ertain-handia izan zen (Salvatierra 21 mm/h, Navarrete 15.1 mm/h, Eitzaga 10.9 mm/h, Oñati 10.6 mm/h, Altzola 10.5 mm/h).

Larunbata, hilak 9: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 15etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 10ean hegoaldetik ekaitz-guneak sartu ziren, oro har zaparrada txikiak bota zituen, baina Goierri ia handiak izatera iritsi ziren (Estanda 14.3 mm/h, Agauntza 7.5 mm/h).

Igandea, hilak 10: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 15etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 11n ezegonkortasun lerro batek itsasertza ukitu zuen eta itsasaldetik zaparrada ertain-handiak sartu diren egunaren lehen partean (Matxixako 20.4 mm/h, Eskas 14.9 mm/h, Bermeo 11.8 mm/h).

Astelehena, hilak 11: Abisu Horia prezipitazio handiagatik kostaldean 09etatik 14etara ordu lokala.

- Hilaren 12an euria iraunkor egin zuen eta eguerdira arte ia 100 mm pilatu ziren Eskas estazioan eta 50 mm gutxi gorabehera inguruan dauden estazioetan (Eskas 93.1 mm, Behobia 58.7 mm, Oiartzun 53.7 mm, Añarbe 49.6 mm, Ameraun 43.9 mm).

Hurrengo eguneko goizaldean berriro jo zuen euritara eta pilatutako kantitateak esanguratsuak izan ziren, baina Artikutza inguruan soilik (Eskas 61.5 mm, Añarbe 30.7 mm). Irunen (Olaberria) eta Hondarribian Bidasoako erretenak gainezka egin zuten eta uholdeak izan ziren (Jaizubia, 2.35 m 06:50 h). Badaezpadako neurri gisa, Añarbeko urtegian ura hustu zuten.

Asteartea, hilak 12: Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Gipuzkoa ekialdean 09etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 12an prezipitazioaren intentsitatea ertain-handia izan zen ekialdeko kostaldeko eskualdeetan (Behobia 16.8 mm/h, Eskas 14.6 mm/h, Oiartzun 12.2 mm/h, Ameraun 11 mm/h, Lasarte 10.6 mm/h, Iruzubieta 10.2 mm/h, Berastegi 10.2 mm/h).



- Hilaren 12an haize-bolada oso gogorak izan ziren; Bizkaiko golkoan kokatu zen depresio baten eraginez (Matxitxako 101.9 km/h, Jaizkibel 91.8 km/h, Higer 91.8 km/h, Oiz 89.6 km/h). Haizeak are gehiago korapilatu zituen prezipitazio iraunkorrek eragin zituen arazoak (hegaldien desbideratzeak, zuhaitzak etzateak, lurjausiak, itsas portuko garraioan etenak, etab.).
- Hilaren 27an goizaldean ekaitz-guneak garatu ziren Araba erdialean eta Bizkaiko kostaldera mugitu ziren; zaparrada trumoitsuak bota zituen. Handienak eguerditik aurrera iritsi ziren Demandako mendilerrotik; tximista kopurua ere handia izan zen (Areta 14.1 mm/h, Matxitxako 13.1 mm/h).

Asteazkena, hilak 27: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Arabako Errioxan 12etatik 21etara ordu lokala.

- Hilaren 29an gune konbektiboak iritsi ziren Demandako mendilerrotik. Lurralde osoan han-hemenka sakabanatu ziren zaparradak, eta oro har intentsitate txikikoak izan ziren, baina Valdegovian handiak izatera iritsi ziren (Tobillas 17.4 mm/h).

Ostirala, hilak 20: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 15etatik 24etara ordu lokala. Alerta Laranja prezipitazio handiagatik 18etatik 21etara ordu lokala.

- Hilaren 30ean hegoaldetik zaparrada trumoitsuen lerroak sartu ziren, txingorra ere egin zuen batzuetan, eta intentsitatea ertain-handia izan zen. Zaparradek EAEren ekialdean izan zuten bereziki eragina (Gorbea 16.1 mm/h, Belauntza 16.1 mm/h, Muxika 11.6 mm/h, Zegama 11.5 mm/h, Arkauti 10.9 mm/h).

Larunbata, hilak 30: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 15etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 30ean haize-bolada oso gogorak neurtu ziren hegoaldetik sartu ziren ekaitz-guneei loturikoak (Paganos 89.6 km/h, Arrasate 73.4 km/h).



Terminologia

Batez besteko tenperatura: hileko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* hileko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen dueneko egun kopurua.

Temperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:* $f < \%20$. tenperatura, urterik beroenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza:* $f \geq \%80$. tenperatura, urterik hotzenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra:* $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologi gidan aurki daiteke:

http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual_estilo/eu_9900/eu_manual.html.

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeke daude.